

## OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2024IPLE0005

**Eguna:** 2024-04-30

**Ordua:** 19:00 – 19:33

**Tokia:** Udaletxeke areto nagusia

### Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa ..... Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez ..... Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero ..... Astigarragako EH Bildu
- Joseba Ilari Etxeberria Calvo ..... Astigarragako EH Bildu
- Aitor Guemes Oiarbide ..... Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena ..... Astigarragako EH Bildu
- Estibaliz Neira Martinez ..... Astigarragako EH Bildu
- Beatriz Lasagabaster Izagirre ..... Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez ..... Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco ..... Astigarragako EAJ-PNV
- Manex Aldalur Beldarrain ..... Astigarragako EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos ..... Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez ..... Udal talde euskal sozialistak

### Bertaratu ez direnak

#### Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

#### Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezko udal kontu-hartzailea

#### Aztergaiak

- 1.- 2024ko martxoaren 26ko akta onartzea.
- 2.- Kreditu aldaketa: kreditu transferentzia
- 3.- 2024ko zerga fiskalak: aldaketa.
- 4.- Lanpostuen balorazioaren eranskinaren aldaketa.
- 5.- Astigarragako Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra Berrikusteko irizpideak eta xedeak..
- 6.- Zarkumendegi 21 HJEko "C" ETA "D" lur-zatien Xehetasun Azterketa .
- 7.- Informazio, galdera eta eskariak.

## Esan-eginak eta erabakiak

### 1.-2024ko martxoaren 26ko akta onartzea.

Aitor, Iñigo, Olaia eta Patxi zinegotziak abstenitu egin dira aurreko bileran ez zirelako egon. Gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

### 2.- Kreditu aldaketa: kreditu transferentzia.

Alkateak kreditu aldaketaren zergatia eta nondik norakoak azaldu ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukoak laburpen honen arabera:

#### Kreditu transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK	303.864,79	18.000,00	285.864,79
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	59.814,28	590,00	59.224,28
<b>GUZTIRA</b>		<b>363.679,07</b>	<b>18.590,00</b>	<b>345.089,07</b>

#### Kreditu jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	252.000,00	18.000,00	270.000,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	1.769,89	590,00	2.359,89
<b>GUZTIRA</b>		<b>253.769,89</b>	<b>18.590,00</b>	<b>272.359,89</b>

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailletza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

### 3.-2024ko zerga fiskalak: aldaketa.

Alkateak proposatzen diren aldaketaren eta horren zergatiaren nondik norakoak azaldu ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.-** 2023ko abenduaren 27an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2024ko Ordenantza Fiskalen 2. eranskina (kiroldegia), "3.4. Udal ondasunen aprobeixamendua" atalaren VI. salbuespenak eta hobariak eta 7.3. artikulua aldaketei hasierako onarpena ematea.

**Bigarrena.-** 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hasierako onespeneren erabakia jendaurrean jarriko da 30 egun baliodunetz.

**Hirugarrena.-** Alegazioarik aurkeztuz gero, ogasun batzordeak egiten duen irizpenaren proposamenaren arabera ebatziko dira.

Bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

#### **4.- Lanpostuen balorazioa.**

Alkateak eranskina aldatzearen zergatia azaldu ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.-** 2023ko maiatzaren 16ko udal osoko bilkuran onartutako lanpostuen balorazioaren IV. eranskina aldatzea.

**Bigarrena.-** Lanpostuen balorazioaren emaitza eta eragin ekonomikoa aplikatzea 2024-01-01etik aurrera, eta 2024ko langile-zerrendan islatzea.

Bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

#### **5.- Astigarragako Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra Berrikusteko irizpideak eta xedeak.**

Alkateak hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehenengoa.-** “Astigarragako Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra Berrikusteko irizpideak eta xedeak” izeneko dokumentua onartzea.

**Bigarrena.-** Plan Orokorra idatzi duen taldeari onartutako irizpideen eta xedeen dokumentua bidaltzea, eta hura oinarri hartuta, hasiera onarpenerako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren dokumentua idatz dezan.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau, onartutako irizpide eta helburuen agiriarekin batera, Plangintzako Aholku Batzordeari eta Aurrerapenean iradokizunak aurkeztu zituzten guztiei bidaltzea

Alkateak azaldu du aurrerapena maiatzean jarri zela jendaurrean eta abuztu bitarte zegoela aukera ekarpenak aurkezteko, eta horiekin eta gaia sakonki aztertu ondoren, helburu eta irizpideak finkatu direla, udal osoko bilkurari aurkeztu zaizkionak, onartu ondoren HAPO berriaren idaztaldeari emateko, HAPOa horren baitan idazteko.

María zinegotzi andreak, hitza hartu eta aldeko botoa emango dutela aurreratu ondoren, adierazi du lehentasunak ez finkatzearen eta bideragarritasunik eta azterketa ekonomikorik ez aurkeztearen falta sumatu dutela. Gainera, horrelako dokumentuak denbora gehiagoz pasatzeko eskatu du, are gehiago dagoeneko idatzita dagoenean (dokumentuaren data martxoaren 15a da eta apirilaren 19an jaso zen), horrek ekarpenak egiteko aukera ematen baitu.

Alkateak adierazi dio hirigintza mota horretako dokumentu batetan ez dela lehentasunik ezartzen, denak maila berean daudelako eta hori gauzatu edo ez lursaileen jabeen esku dagoela. Maria zinegotziak, berriz, ulertzen du lehentasunak ezarri daitezkeela behintzat eremuka; eta alkateak adierazten dio HAPOak eskubideak finkatzen dituela eta horiek egikartzea edo ez jabeen eskuetan dagoela.

Bestetik, alkateak adierazi dio HAPOan ez dela azterketa ekonomikorik egiten, eta bideragarritasun

txostenak ere ez direla gehitzen, baina jaso diren ekarpenak bideragarriak diren edo ez aztertu dela, dokumentua egin aurretik.

Patxi zinegotziak hitza hartu eta adierazi du xede eta printzipio guztiekin ados dagoela, eremuz eremuz hartuta ere. Eta galdetu du, batetik, parte hartzearen emaitzak non lortu ditzakeen, eta bestetik, azoka estalia aurreikusia dagoen. Bukatzeko, eskatu du semaforoak jartzearen gaia dokumentuan sartzeari.

Alkateak erantzun dio udaltzainek eta obrak eta zerbitzu sailak ez dutela beharreko ikusten herrian semaforoak jartzea, beharrezkotzat joz gero aztertuko luketeela gaia. Eta partehartze prozesuaren emaitzei dagokionez, bidaltzekotan gelditu da.

Andoni zinegotziak argitu du azokaren gaia Umakon aurreikusten dela, baina Patxik adierazi dio ez dela zehazten estalia izango den edo ez.

Bestalde, Andoni zinegotziak adierazi du Hirigintzako Aholku Batzordean informazio guztia eman zela eta ekarpenak maiatzetik egin zitezkeela, baina ez direla eskatu. Eta María zinegotziari adierazi dio onartuko den dokumentuak 13 orrialde dituela.

María zinegotziak berriro ere hitza hartu eta erantzun dio aktak eta dokumentazioa jaso eta aztertzen dutela, baina hori foro bat dela, eta berak batzorde informatiboko eta udal osoko bilkurako dokumentazioaz hitz egin duela, eta errespetu osoz eskatu ahalik eta azkarren bidaltzea.

Eta orduan Andoni zinegotziak erantzun dio, dokumentua martxokoa bada ere, onartu ahal izateko, beharrezkoa dela udal-teknikarien oniritzia izatea eta txosten juridikoa apirilaren 18koa denez, ezin zela lehenago bidali.

Jarraian, bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

## **6.-Zarkumendegi 21 HJEko "C" ETA "D" lur-zatien Xehetasun Azterketa.**

Alkateak hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehenengoa.***- *Lehenengoa.- ZARKUMENDEGI 21 HJE eremuko "C" eta "D" lurzatien xehetasun-azterketaren dokumentu bategina, udal-arkitektoak baliozkotua, behin betiko onartzea, non honako baldintza hauek jaso dira:*

*1.- Añarbeko Uren Mankomunitatearen eta Ur Euskal Agentziaren txostenak bete izanaren justifikazioa.*

*2.- Udal arkitektoaren 2024ko apirilaren 22ko txostenean ezarritako baldintza hauek:*

*- Gehieneko lerrokaduren eta bideetatik poligonoan sartzeko bideak: Zarkumendegiko Industrialdearen Urbanizazio Proiektuan (1-7 bideak) definitutako espaloi eta bide publiko nagusietatik fatxada nagusira eraikitzeko lerrerako Plan Partzialean ezarritako 5 metroko atzeraemangunea mantenduko da. Gainerako bide, landa-bide edo pistetan, gehieneko lerrokadurak lurzatiaren mugaraino lerrokatu ahal izango dira, antolamendu-planoetan eta 6. apartatuan jasotzen den bezala.*

*- Industria-bide nagusizat hartzen ez diren bideetatik ezin izango dira ezarri ibilgailuentzako sarbideak, ezta zamalanetarako balio duten ateak, leihoak eta gainerako baoak ere. Jardueretarako soilik baimenduko da oinezkoentzako larrialdi-irteerak ezartzea, iheserako beste barne-alternatiba bideragarriarik ez dagoenean.*

*- Atzeraemangune-irizpide hori Zarkumendegi poligonoko gainerako lurzatietan ere aplikatu daiteke, xehetasun-azterketaren testu bategina behin betiko onartzen denean.*



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.eus

- Xehetasun-azterketa behin betiko onartzen denetik hamabost eguneko epean, "a area" eta "b area" lursail publikoak okupatu gabe utzi beharko dira, itxitura bat jarritz, aipatutako lursailak okupatu ez daitezten. Eredu horietarako sarbidea D lurzatiak egiten denez, dagokion espedientea sustatu beharko da lurzati horien erabilera eta/edo jabetza erregularizatzeko.

- Ez da hegalkin edo hegal iraunkorrik eraikiko lurzatiak bigarren mailako bide perimetral publikoen gehieneko lerrokaduretan 10 metro baino gutxiagoko altueran.

- Lurzatiak inguratzen dituzten bideek behar adinako zabalera eta biraketa-erradioak izango dituzte, fatxadetan ibilgailuen joan-etorrietarako xafaiak barne; zirkulazioa errazteko, izkin pribatu ez-erakigarriak sortu ahal izango dira. Alderdi horiek eraikuntza-proiektuan zehaztuko dira.

- Xehetasun azterlana hau onartu eta 30 lan-eguneko epean eta berriz urbanizazio-proiektuko obrak amaitu ondoren, in situ egiaztatuko dira lursail guztien mugak eta azalera, sustatzaileak aurkeztu beharreko planoen arabera.

**Bigarrena.**- Aurreko erabakian aipatzen den xehetasun-azterlana Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, argitaratu aurretik Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan gorde dezan.

**Hirugarrena.**- Behin betiko onespeneraren erabakiaren edukia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web-orrian argitaratzea, hirigintza-plana aipatutako erregistroan gordailatu dela adierazita.

**Laugarrena.**- CONSTRUCCIONES MOYUARI SLri jakinaraztea eraikuntza- eta urbanizazio-proiektuek udalak bere erabaki eta txostenetan ezarritako baldintzak bete beharko dituztela.

**Bosgarrena.**- CONSTRUCCIONES MOYUA, SL enpresari jakinaraztea urbanizazio-proiektuaren aldaketa aurkeztu beharko duela Udaleko Erregistroan, hilabeteko epean, xehetasun-azterlana behin betiko onartzen denetik kontatzen hasita.

**Seigarrena.**- Erabaki hau Construcciones Moyua SLren ordezkariari jakinaraztea, udal arkitektoaren 2024ko apirilaren 22ko txostena bidaliz, eta C lursailaren jabea den Astigarraga Lantzen SARI

Bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

### **7.- Informazio, galdera eta eskariak.**

#### **a.-obra-kontratuak**

Alkateak adierazi du Arrobitxulo hiritartze-lanak hasi direla, eta Apeztegiko igogailua jartzeko obrak maiatzaren 6ko astean hasita aurreikusten dela. Bestetik, komentatu du ibai-parkea handitzeko obrak bukatzeaz daudela, eta laster irekiko dela jolastokia.

#### **b.- zerbitzu kontratuak**

Alkateak azaldu du aurten bukatzen direla etxez etxeko zerbitzua eta etxebizitza babestuetako laguntza zerbitzua, eta lizitazio berrirako dokumentazioa eta pleguak prestatzen hasiak direla. Eta gaineratu du sektore horretan prekaritate maila handia dagoenez, alegin bat egingo dela zerbitzu horietako langileen-lan baldintzak hobetzeko.

#### **c.- jaiak**

Alkateak adierazi du, batetik, Santio jaien batzordeak hasi diirela, eta bestetik, San Isidro eguneko egitaraua laster emango dela ezagutzera.

**d.- Txoritokieta bideko zebrabidea**

Herritar batek hitza hartu eta adierazi du bere etxera gurutzatzeko ez dagoela zebrabiderik, eta badakienez bidea konponduko dela, ondo legokeela bat jartzea. Bukatzeko komentatu du ez dakiela horrelakoak esateko lekua den osoko bilkura.

Alkateak erantzun dio kontuan hartuko dela bere eskaera, eta aztertu eta landuko dela udaltzainekin eta obra eta zerbitzuetako teknikariek. Bestetik, argitu dio horrelako eskaerak obra eta zebitzu sailean egin daitezkeela, baita ere erregistroan idatziz.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin nik, Idazkariak, honako agiria egin dut.

Astigarragan, 2024ko apirilaren 30ean

Kontxi Urdampilleta Santamaria  
Ordezko udal- idazkaria